

**Bizkaia****BILBAO-PORTUGALETE-SANTURTZI TRENBIDEA  
FERROCARRIL BILBAO-PORTUGALETE-SANTURTZI**

Bilbotik Portugaletera eta Santurtzira doan trenbidea egiteko proiektua 1858. urtean hasi zuten, Bilbao-Tutera trenbide-linearen jarraipen gisa, bide hori portuarekin lotzeko. Proiektua Charles Vignoles ingenariak egin zuen. Egitasmo hori, ordea, arazo ekonomikoengatik bertan behera utzi zuten; 1871n beste saio bat egin zuten, baina, Gerra Karlista zela kausa, huts egin zuen. Azkenean, 1884an beste kontzesio bat eman zioten Artetxeren Bilbao-Portugalete trenbidearen konpainiari, eta Pablo Altzola enpresako bazkide eta ingenariaren zuzendaritzapean lanak hasi zituzten. Hasiera batean, Norteko linearen (Bilbao-Tutera) eta Portugaletekoaren arteko lotura Abandoko geltokitik egiten zen, Erripan zegoen arrapala arriskutsu batean barrena, eta behin-behinean Uribitarteko kaiko pabiloi bat erabiltzen zen, lehenbiziko urteetan Najako geltokia oraindik eraikitzeke baitzegoen. Bi linea horiek zuzenean lotzeko lanak 1895ean amaitu ziren, Cantalojas-Olabeaga loturaren bitartez; horri esker, Miribilla eta Ollarganeko meategietatik aterratzen zen mineralaren merkaturatza indartu nahi zuten. 1924an Compañía del Norte enpresak Bilbao-Portugalete konpainiaren akzio guztiak erosи zituen. Konpainia horrek mendetasun handia zuen trenbiderako materialak hornitzeko (bagoiak batez ere), eta halaxe sortu zen bien arteko akordioa. Garai hartan instalazioak hobetu, bagoi berriak jarri, bide bikotza ezartzeko lanak bukatu eta 1926an linea Santurtziraino luzatu zuten, Portuko Obra Batzordearen laguntzarekin. Gerra Zibilaren ostean RENFE integratu zuten. Erakunde horrek Bilbao-Portugalete-Santurtzi trenbidea kudeatzen jarraitu du eta azken bi hamarkadetan berrikuntza ugari egin ditu linea honetan; bai instalazioetan, bai geltokietan.

La línea de ferrocarril de Bilbao a Portugalete y Santurtzi fue un proyecto iniciado en 1858 como prolongación del ferrocarril Bilbao-Tudela para enlazar con el puerto, según proyecto de Charles Vignoles. Paralizada esta iniciativa por problemas económicos, y tras un nuevo intento en 1871 que fue truncado por la Guerra Carlista, en 1884 se otorga una nueva concesión a la Compañía de Arteche y se inician las obras bajo la dirección de Pablo de Alzola, ingeniero y socio de la empresa. Al principio la conexión entre la línea del Norte (Bilbao-Tudela) y la de Portugalete se realizaba por una peligrosa rampa situada en Ripa, desde la estación de Abando, toda vez que en los primeros años la estación de la Naja no se había construido todavía, y con carácter provisional se utilizaba un pabellón en el muelle de Uribitarte. En 1895 se concluyó el enlace directo entre ambas líneas mediante el empalme Cantalojas a Olabeaga, buscando potenciar el tráfico de mineral que proporcionaban las minas de Miribilla y Ollargan. En 1924 la Compañía del Norte compró todas las acciones del Bilbao-Portugalete. La dependencia de éste en la provisión de material ferroviario, especialmente vagones, consumió el acuerdo con la línea del Norte. En esta época se mejoraron las instalaciones, se incorporaron nuevos coches, se terminó la doble vía y en 1926 se alargó la línea hasta Santurtzi con la colaboración de la Junta de Obras del Puerto. Pasada la Guerra Civil se integra en RENFE, organismo que continúa gestionando la línea y que ha realizado numerosas reformas en las dos últimas décadas, tanto en instalaciones como en estaciones.